



Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango

Prentsa zerbitzua

AMANKOMUNAZGOAK BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREKIN HITZARMENA SINATZEA ONARTU DU EDUKIONTZI BERRERABILGARRIA JARTZEKO

Edukiontzi berria orain arte egon denaren ordeaz jarriko da. Leku berdina izango du eta bertan erropak, oinetakoak eta beste zenbait osagarriak ez ezik, aparagailu elektrikoak eta elektronikoak ere utzi ahal izango dira.

Guztira 11 edukiontzi jarriko dira, Amankomunazgoaren barne dauden herri desberdinetan eta zerbitzua hau ez dutenen artean bananduta.

Amankomunazgoak bakarrik ordainduko du edukiontzi hauetako elementuen berrerabilgarria izateko behar duten tratamendua. Bilketa Garbiker enpresak egingo du eta berrerabilgarriko prestakuntza lana Kooperera Ingurumena Bizkaia enpresak egingo du

Durangoko Amankomunazgoak onartu berri du gaurko bilkuran, Bizkaiko Foru Aldundiarekin, berrerabilgarriko edukiontzi berriak jartzeko hitzarmena sinatzea. Orain arte erropak eta oinetakoak zegoen edukiontzi beste honengatik aldatuko da “edukiontzi zuria” deritzona. “Beraz hemendik aurrera erropak, oinetakoak zein liburuak, aparagailu elektrikoak eta elektronikoak bertan utzi ahal izango dira” azaldu du Oskar Zarrabeitia, Amankomunazgoko presidentea..

Guztira 11 edukiontzi izango dira eta hain zuzen orain arte Amankomunazgoaren barne dauden herrietan jarriko dira (Abadiño, Atxondo, Elorrio, Garai, Iurreta, Izurtza, Mañaria y Zaldibar). Beraz orain arte dauden edukiontzi berdeen kopurua mantenduko da herri bakoitzean, herritar kopuruaren arabera hain zuzen. Irizpide berdina jarraitu da, bilketaren frekuentzia onartzeko orduan. Horrela Abadiño, Iurreta eta Elorriko berrerabilgarri diren bi edukiontzi jarriko dira eta bilketa astero egingo da. Atxondo,

Garia, Izurtza, Mañaria eta Zaldibarren berriz edukiontzi bat izango dute eta bilketa hamabostero behin egingo da, Zaldibarko kasuan izan ezik astero egingo bait da.

Bertan utzi ahal izango diren gauzez gain, beste batzuk ere aipatzekoak dira: etxeako erropak, boltsak, gerrikoak, erreminta, margoak eta imitaziozko bitxiak. Bestalde ebaki edo ziztatzeko arriskua duten elementuak ezin izango dira bertan laga, hau da artaziak, baxera, beiragintza, ganibetak edota kuterrak. Ezta toxikoak edo arriskutsuak diren produktuak, garbitasunezko produktuak, disolbatzaileak, pinturak..

BILKETA SELEKTIBOA

Edukiontzi berrietan bilduko diren hondakinak, estatuan dagoen lehen fabrika automatizatura eramango dira eta bertan objektu berrerabilgarrirako kudeaketa egingo da. “Produktuak gero eta erabilgarriagoak badira, hondakin gutxiago izango ditugu. Gaur eguneko gizartean, “erabili eta bota” izeneko produktuak gero eta gehiago ditugu asko kontsumitzen dugulako, baina horri erantzun bat eman behar diogu eta kontsumo arduratsuaren aldeko apostua egin behar dugu” azaldu du zarrabeitiak.

Berrerabilgarria den erropa eta dagokion tratamendua pasatu ondoren, ezaugarri eta kalitataren arabera Ekorropa dendetara ermango da (Artekale 36 Durango) edo nazioarteko kooperaziotarako erabiliko da.

ZERBITZUA

Hitzarmen honi esker, Amankomunazgoak, materialak berrerabilgarriak izateko behar duten tratamenduraren gastuak orainduko ditu eta gainera edukiontziak jarriko diren gune publikoen baimena emango du.. Bestalde Amankomunazgoak, bilketa, mantentze lanak eta edukiontzi berriak jartzearen zerbitzuengatik ez du ordainduko.

Bilketa zerbitzua Garbiker enpresari esker egingo da, eta honek Kooperera Ingurumena Bizkaia enpresari esleitu dizkio lanak.